

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Zerga ordenantzen aldaketaren hasierako onarpena

Udalbatzak, 2016ko urriaren 19an egindako bilkuran, ondoko zerga ordenantza hauek aldatzea erabaki du:

1. Zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza. Hirigintza txostenen epigrafea.
2. Zerbitzuak eman eta jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko prezio publikoa arautzen duen ordenantza, epigrafe honetan: Kopia edo administrazio agiriak jaulkitzeko zerbitzua.

Espedienteak Udalaren Idazkaritzan egongo dira ikusgai hogeita hamar egun balioduneko epeaz, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, epe horretan interesa dutenek egokitzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Erabaki hau behin betikoa dela joko da erreklamaziorik aurkezten ez bada. Erreklamazioren bat egonez gero, beste erabaki bat hartuko da horren gainean.

Argitara ematen da, uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak, toki ogasunak arautzen dituenak, 16. artikuluan xedatutakoa betez.

Langraiz Oka, 2016ko urriaren 25a

Alkate-lehendakaria

JOSE JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA